

Helduei euskara irakastea

ESKUALD. KODEA	HERRIA	HERRIAREN KODEA	IKASTETXEA	IKAST. KODEA
310128	UHARTE	311220001	"ZUBIARTE EUSKALTEGIA" HEIIP	31013136C

Ospitaleko Pedagogia Terapeutikoaren Programa

ESKUALD. KODEA	HERRIA	HERRIAREN KODEA	IKASTETXEA	IKAST. KODEA
310116	IRUÑA	312010002	NAFARROAKO HEZKUNTZA BEREZIKO BALIABIDEEN ZENTROA.....	31000030C

Programa probintziaren esparrukoa denez, destinoa zentro horretan lortzen dutenak Komunitate osoan arituko dira, zerbitzu beharren arabera.

Lehen hezkuntza espetxean

ESKUALD. KODEA	HERRIA	HERRIAREN KODEA	IKASTETXEA	IKAST. KODEA
310116	IRUÑA	312010002	ESPETXEA	31000031C

III. ERANSKINA

Lanpostua kentzeko eskaera

Deiturak eta izena

Destinoko ikastetxea

Herria

Atxikipena eta hizkuntza.....

Bere lanpostua formalki ken dadila eskatu du.

.....(e)n, 2007koaren(e)an.

(Sinadura, ezinbestekoa)

O. E.

IKASTETXEKO ZUZENDARIA,

IV. ERANSKINA

Lanpostu ibiltari bati atxikitzeko eskaera

Deiturak eta izena

Destinoko ikastetxea

Herria

Atxikipena eta hizkuntza.....

Honako lanpostu ibiltari honi atxikitzea eskatu du:.....

.....(e)n, 2007koaren ..(e)an.

(Sinadura, ezinbestekoa)

O. E.

IKASTETXEKO ZUZENDARIA,

(- F0717560 -)

F0717560

2521/2007 EBAZPENA, azaroaren 9koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko maisu-maistren lanpostuak betetzeko deialdiak onesten dituena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarriko laugarren puntuan ezartzen duenaren arabera, estatu osorako lehiaketak egiten ez diren ikasturteetan, hezkuntza arloko administrazioek lanpostuak betetzeko prozedurak antolatzen ahalko dituzte, berek kudeatzen duten esparruan eta bertako lanpostuak betetzeko. Hori dena, noiznahi ere beren langileak banatu edo kartzeko prozedurak egiteko duten gaitasuna deusetan galarazi gabe.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, irakasle kidegoetako funtzionarioen lekualdatze lehiaketen bidezko mugikortasunean eragina duten aurreikuspenak garatzen ez diren bitartean, mugikortasuna indarra duen araudiari lotuko zaiola lege honek indarra hartzean. Halaber, arau bereko hamaikagarren xedapen iragankorrek dio legearen arabera geroko xedapenen bidez arautuko diren gaietan, xedapen horiek eman bitarte, legeak indarra hartzean aplikatzen ziren arauak aplikatuko direla, hartan xedatutakoaren kontrakoak ez badira behintzat.

Horrenbestez, indarrean jarraituko du irakasleen kidegoetako lanpostuak betetzeko estatu osorako lekualdatze lehiaketak arautzen dituen urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak, zeinaren 1. artikulua ezartzen baitu estatu osorako lekualdatze lehiaketak bi urtean behin egin behar direla. Kontuan harturik lehiaketa horietarako deialdiak 2006/2007 ikasturtean egin zirela, ikasturte honetan beste neurri batzuk har daitezke lanpostuak betetzeko, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoari jarraikiz.

Horiek horrela, bidezkoa da Nafarroako Foru Komunitatearen barnean lanpostuak betetzeko prozesu bat egitea, Departamentu honen

menpeko langileei destinoa esleitu ahal izateko, eta, horrela, behin betiko destinoa duten maisu-maistren kopurua ikastetxeen langile beharrei egokitu ahal izateko.

Hezkuntza Departamentuko Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak irailaren 19an emandako 155/2007 Ebazpenaren bidez esleitu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

- Ikastetxean berraxikitze deialdia.
- Lehentasunezko eskubide deialdia.
- Lekualdatze lehiaketako deialdia.

1.–*Deialdia, ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten lanpostua kendu edo aldatzearen ondorioz hura utzi behar izan duten maisu-maistrek eta gaiturik izan gabe lanpostu bati atxikita ari direnek (uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuko 6. eta 17. artikulua) ikastetxe bereko beste lanpostu bati atxikitze eskaera egin ahal dezaten.*

Honako oinarri hauen bidez arautuko da:

I. oinarria.–Parte-hartzaileak.

Lehen.–Deialdi honetan parte har dezakete Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpe organikoki eta funtzionalki dauden maisu-maistrek, baldin eta ondoko kasuetakoren batean badaude:

- 1) Uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 38. artikulua eta abuztuaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarria aplikatzearen ondorioz, behin betikotasunez betetzen zuten lanpostua galdu dutenek.
- 2) Uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren xedatutakoari jarraikiz egindako atxikipen deialdiaren ondorioz lanpostu jakin batean segitzen dutenek hartarako gaiturik egon gabe, uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 6. eta 17. artikuluek agintzen dutenaren arabera (azaroaren 8ko 1664/1991 Errege Dekretuak emandako idazketan).
- 3) Beste kasu batzuk: (3. atal honen barnean kolektibo batek ez du bestearen gaineko lehentasunik).

–Behin betiko destinoa duten maisu-maistrek, gaztelaniazko lanpostuei atxikita badaude, EGA titulua edo baliokidea izanik, aukera izanen dute destinoko ikastetxean euskarazko lanpostu bat hartzeko, betiere, horren zereginetarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

–Behin betiko destinoa lerro edo unitateak bereziak dituen ikastetxe batean izanik, gaztelaniazko lanpostu bati atxikita daudenean, EGA titulua edo baliokidea baldin badute, aukera izanen dute bereizitako lerro edo unitateak hartu dituen ikastetxean euskarazko lanpostu bat hartzeko, betiere, horren zereginetarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Deialdi honetan parte hartu eta destinoa bereizitako lerro edo unitateen ondorioz sortu den ikastetxean duten maisu-maistrek etengabeko egonaldi gisa kreditatua duten puntuazioa mantenduko dute eta, beraz, lortutako lanpostu berria aurrekoaren jarraipentzat hartuko da, lanpostuak betetzeko egiten diren ondoko deialdietan.

Dena dela, deialdi honetan destinoa esleitu ondoren, interesdunak ezin izanen dira baliatu lehenbiziko behin betiko destinetatik parte hartzen duten maisu-maistrentzako deialdien arau komunitateko bederatzigarren arauan aurreikusitako aukeraz; behin betiko destino hura lortzeko nahitaez hartu zuten parte lehiaketan, kidegoan sartu eta behin-behineko egoeran zeudela.

–Behin betiko destinoa izanik lehen hezkuntzako lanpostuei atxikitako maisu-maistrak beste espezialitate batzuetako lanpostuetara be-

rratxikitzen ahalko dira, betiere horien zereginetarako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

–Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi kurtsoetako lanpostuei behin betikoz atxikitako maisu-maistrak, baldin eta lanpostua minoratua badute Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 9an emandako 2520/2007 Ebazpenean argitaratutako plantillen arabera.

Maisu-maistra horiek aukera izanzen dute ikastetxe berean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi kurtsoetako lanpostuei atxikitzeko, betiere horien zereginetarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena.–Deialdi honetatik baztertuta gelditzen dira goian aipatutako kasuetan agertzen ez diren maisu-maistrak.

II. oinarria.–Lehentasunak.

Hirugarrena.–Destinoa eskuratzeko lehentasuna zehaztuko da irakaslea zer kasutan dagoen kontuan hartuta, I. oinarriko lehen arauan adierazten den lehentasun hurrenkerari jarraikiz.

Laugarrena.–Maisu-maistra bat baino gehiago baldin badago kasu berean, horien arteko lehentasuna ikastetxean behin betiko gisa duten antzinasunak erabakiko du. Horretarako, ikastetxeko antzinasun gisa kontatuko da zerbitzu-eginkizunetan, zerbitzu berezietan eta behin betiko destinoa galtzea ekarri ez duten beste egoera administratibo batzuetan emandako denbora, salbu interes partikularrengatik lanpostua erreserbatuak ematen den borondatezko eszedentzia (Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuko 26.1 c) artikuluan ezarria, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia eta maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak aldatua).

Maisu-maistrek ikastetxe bateko destinoa beste ikastetxe bat zatibitu edo osorik nahiz zati bat lekuz aldatzeagatik eskuratu badute, bertan duten behin betiko jabetzako antzinasunaren ondorioetarako, jatorrizko ikastetxeari dagokion kontatuko da. Irizpide bera erabiliko da egungoaren aurreko destinoa kendu zitzaizen irakasleen kasuan. Elkarren segidako lanpostu kentzeak jasan dituzten maisu-maistren kasuan, metaketa horren barnean sartuko dira bata bestearen atzetik kendu zaizkien lanpostuen ikastetxeetan behin betikotasunez emaniko zerbitzuak.

Bosgarrena.–Antzinasunean berdintasuna gertatuz gero, Maisu-maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa zerbitzuan urte gehien eman izanak erabakiko du, eta azkenik, sartzeko promoziorik zaharrenak eta, horren barruan, lorturiko zenbakirik txikiak edo hautapen prozesuko puntuaziorik handienak.

Kidegoan abenduaren 30eko 31/1991 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera sartutako kasuan, maisu-maistren kidegoan karrerako funtzionario gisa duten antzinasunari lan-kontratadun finko gisa dutena gehituko zaio, lehenengo zerbitzu-urtea kenduta.

III. oinarria.–Eskaerak.

Seigarrena.–Deialdi honetan parte hartu nahi duten maisu-maistrek Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo aldapa, z.k.g., Iruña) eskura izanzen duten eskabide orria bete beharko dute.

Eskaeran ikastetxeko edozein lanpostu eskatzen ahal dute, eta ezinbestekoa izanzen da hori betetzeko gaiturik egotea.

Eskabidearekin batera, deialdien arau komun V. oinarriko hemezortzigarren arauan zehazten denaz gainera, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

–Lanpostu-uztea lanpostu hura kendu edo aldatzeagatik izan dela egiaztatzen duen agiriaren kopia; (deialdiko I. oinarriaren lehen arauko 1) kasuan dauden maisu-maistrek soilik). Beren lanpostua kentzea ikasturte honetan eskatu duten maisu-maistrei agiri hori ofizios gehituko die Giza Baliabideen Zerbitzuak.

2.–Deialdia, 895/1989 Errege Dekretuko 18. artikuluan (abuztuaren 5eko 1774/1994 Errege Dekretuko lehenengo xedapen indargabetzaileak aldatua) zehazten diren kasuetakoren batean dauden maisu-maistrek, edo urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriaren ageri diren kasuetan daudenek destinoa herri edo eskualde jakin batean eskuratzeko eskubidea erabili ahal dezaten.

Honako oinarri hauen bidez arautuko da:

I. oinarria.–Parte-hartzaileak.

Lehena.–Destinoa herri jakin batean eskuratzeko lehentasunezko eskubidea izanzen dute, behin bakarrik eta lanpostu hutsik izanez gero, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpe organiko eta funtzionalki dauden maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek, ondoren aipatzen diren kasuetakoren batean badaude:

a) Ebazpen administratibo irmo baten indarrez, destinoa herri jakin batean eskuratzeko edo lehen betetzen zuten toki berean berreskuratzeko eskubide aitortua duten maisu-maistrek.

b) Herri edo eskualde berean behin betikotasunez betetzen zuten lanpostua kendua duten maisu-maistrek, lanpostu berezietan atxikita baldin badaude. Kentze kasuen barruan sartuko da lanpostuaren eraldaketa, titularrak lanpostu hori betetzeko uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuko 6. eta 17. artikuluetan eskatzen diren berariazko betebeharrak betetzen ez dituztean.

c) Atzerrian dauden ikastetxe publiko espainiarretan jardun ondoren eman zitzaizen atxikipen aldia iragan delako lanpostu horiek utzi dituzten maisu-maistrek, zeintzuei urriaren 31ko 1138/2002 Errege Dekretuak (262. E.A.O., azaroaren 1ekoa) eskubidea aitortzen baitie Espainiara itzultzen direnean lanpostu bat eskuratzeko, hain zuzen ere beren izendapena egin zenean behin betiko destinoa zuten herrian bertan.

Arau honen ataletan zehazten diren kasuetako edozeinetan dauden maisu-maistrek eskualdearen mugapeko edozein herrian erabili ahal izanzen dute eskubide hori.

Bigarrena.–Lehentasunezko eskubidea erabili ahal izateko, aipatu diren kasu guztietan, honako baldintza hauek bete beharko dira aldezturik:

a) Destinoa herri edo eskualde jakin batean izateko eskubidearen oinarria izan dadila horretarako zuzenean egindako izendapena, lanpostua betetzeko prozedura arruntaren bidezkoa.

b) Bete gabeko edo hutsik gelditutako lanposturen bat izatea herri edo eskualde horretan, eta betiere hartan aritzeko eskubidea izatea.

Hirugarrena.–Oinarri honetako lehen arauan aipatzen diren maisu-maistrek, lehentasunezko eskubide hau erabili nahi izanez gero, eta hori erdietsi bitartean, administrazio publikoek xede horretarako egiten dituzten deialdi guztietan parte hartu beharko dute; hori egiten ez balute, eta beraiek eskuratzeko moduko lanpostu hutsik suertatuko balitz, eskubide hori galdu egingen lukete. Horrek guztiak ez du ezertan garaizten uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuan maisu-maistra horien inguruan xedatzen dena.

Laugarrena.–Lanposturako eskatutako nahitaezko gaitzua izan gabe oraindik ere bertan jarraitzen duten maisu-maistrek, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko hamargarren xedapen gehigarriaren arabera (239. "EAO", urriaren 6koa), lehentasunezko eskubidea izanzen dute destinoa behin betiko ikastetxearen herrian edo eskualdean lortzeko, eta uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuko 18. artikuluan ezarritako lehentasunen barnean sartuko dira, hartan aipatzen den b) taldean hain zuzen ere. Lehentasunezko eskubide hori erabiliko dute deialdi honetako III. oinarriaren zazpigarren arauan ezartzen den eran.

II. oinarria.–Lehentasunak.

Bosgarrena.–Herri edo eskualde baterako lehentasun eskubidea gauzatzeko lehentasuna, bakoitza zein kasutan dagoen kontuan harturik erabakiko da, deialdi honen I. oinarriaren lehen eta laugarren arauekin bat etorritik adierazten den hurrenkerari jarraikiz.

Talde berean maisu-maistra bat baino gehiago elkartzen denean, baremoa aplikatu ondoren erdietsitako puntuazio handienaren arabera zehaztuko da nor duen lehentasuna.

Seigarrena.–Lehentasun eskubidea erabili izanaren ondorioz herria eta espezialitatea eskuraturik, ikastetxe jakin bateko destinoa parte-hartzaileen arteko lehiaketa bidez eskuratu da. Lehiaketa horren deialdi ebazpen honen 3. zenbakian egiten da, eta lehentasunak merizimenduen baremoaren arabera finkatuko dira.

III. oinarria.–Eskaerak.

Zazpigarrena.–Lehentasun eskubidea zein herritatik datorkion hantxe erabili beharko da, edo, halakorik izanez gero, eskualdeko beste herri batean edo beste batzuetan (deialdi honen II. eranskina), gaituta dagoen espezialitate guztietarako; gainera, aukeran izanzen da ibiltari izateko baldintza duten espezialitateetarako edo Pedagogia Terapeutikoaren espezialitateetarako erabiltzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi kurtsoetan, herri horretan edo horietan; horretarako, Administrazioak izangaiei emanen dien eskabide orria bete beharko dute.

Lanpostu berezietan atxikitako maisu-maistrek beren lanpostua kentzeko eskaera egiten badute, lehentasun eskubidea erabili dute ebazpen honen II. eranskinean azaltzen diren eskualdeetako bati buruz, betiere kendutako lanpostuaren jarduketa eremuaren barnean badago. Hori dela eta, III., IV., V. eta VIII. eranskinetan aditza ematen da eskualdeko lanpostu berezien Programan jarduketa eremua zein den.

Eskabide orrian adierazi beharko dute, orriarekin batera doazen argibideei jarraikiz, behar den lekuan, eskubidea zein herritatik datorkion hango kodea eta, beste herri baterako edo batzuetarako eskaria eginez gero, eskubidea erabili gogo duten eskualdearen kodea. Hala ere, lanpostu berezietan atxikitako maisu-maistrek eskubidean adierazi beharko dute lehentasun eskubidearen helburu den eskualdearen kodea, deialdi honetako II. eranskinaren arabera. Era berean, lehentasun hurrenkeran adieraziko dute denek zein espezialitateetarako erabiltzen duten eskubide hori, betiere horietarako gaituta badaude. Hori egiten ez badute eta ezarri dituztenetan destinatorik lortzen ez badute, Administrazioak lanpostuaren erreserba esleituko die, ezarri ez diren espezialitateetako

edozeinetan. Hizkuntzaren eta/edo ibiltaritzaren baldintza duten espezialitateetarako postua gordetzeko eskaria eginez gero, horretarako propio jarri diren laukitxoetan adieraziko dute, espezialitateen aldamean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren kursoan Pedagogia Terapeutikoaren espezialitateetarako lanpostu erreserba eskatuz gero, eskabide orrian heldu diren jarraibideei segituz adierazi beharko dute. Lehentasun hori kontuan hartuko da herria eta espezialitatea erresebatzeko.

Ikastetxe jakin bat eskuratzeko, zerrendan jarri beharko dituzte, beren nahien arabera, eskabidean xede horretarako seinalatzen den tokian, eskubidea damaien herriko ikastetxe guztiak, II. eranskinen datozenak, eta, hala bada, eskualdean nahi dituen herrietako ikastetxe guztiak, eranskin berean datozenak; herria eskatuz gero, herri horretan lanpostu hutsak dituen edozein ikastetxetara destinatuko dute; ikastetxe jakin batzuk eskatuz gero, horiek herri multzo homogeneoetan elkartuko dituzte. Eskubidea damaien herriko ikastetxe guztiak, II. eranskinen ageri direnak, eskatzen ez badituzte, ez eta eranskin berean aukeratu duten herriko edo herrietako ikastetxe guztiak ere, herri horietakoren batean lanpostu hutsik baldin badago, Administrazioak bere iritzieren arabera erabakiko du destinoa. Gauza bera egiten da, interesdunen lehentasunen arabera, ibiltari izaera duen espezialitate batean edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kursoetako Pedagogia Terapeutikoaren espezialitatean postu erreserba lortu badute, eta horrela-koetan eranskinetako zerrendan agertzen diren ikastetxe guztiak –hautatu herrikoa edo herrietakoak– seinalatu beharko dituzte.

Eskabidearekin batera, deialdien arau komun V. oinarriko hemezortzigarren arauan zehazten denaz gainera, honako agiri hau aurkeztu beharko da: herri edo eskualde jakin baterako lehentasun eskubidea erabil dezaketela egiaztatzen duen agiriaren kopia.

Deialdi honetako I. oinarriko laugarren arauan aipatzen diren maisu-maistrek deialdien arau komunetako V. oinarriko hemezortzigarren arauan zehazten den dokumentazioa soilik aurkeztu beharko dute.

3.–Lekualdatze lehiaketarako deialdia.

Honako oinarri hauen bidez arautuko da:

I. oinarria.–Ezaugarriak.

Lehena.–Lehiaketaren xedea lanpostuak ikastetxe eta espezialitateen arabera betetzea da, uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta 1990eko apirilaren 19ko Aginduan aurrez ikusitakoan arabera, hain zuzen ere. Hala behar bada, eskatzen ahal diren hizkuntza betebeharrak kontuan hartuko dira, deialdi honen II. eranskinetako ikastetxeen arabera eta X. eranskinen adierazten diren espezialitateetarako.

Aurreko lerroaldean adierazitako lanpostuez gainera honakoak sarzeten dira:

–Ikastetxe publikoetako ibiltariak.

–Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kursoetakoak (arruntak eta ibiltariak), LOEko lehenengo xedapen iragankorren eta hezkuntzako plangintzan sortutako beharrak kontuan harturik, maisu-maistren kidegoko funtzionarioek betetzeko erresebatzen diren haiexek.

–Entzumen eta Hizkuntzakoak, eskualdekoak, III. eranskinaren arabera.

–Helduen Lehen Hezkuntzakoak, ikastetxeakoak edo eskualdekoak, IV.A eranskinaren arabera.

–Helduentzako ingelesekoak, ikastetxeakoak, IV.B eranskinaren arabera.

–Helduentzako frantsesekoak, ikastetxeakoak, IV.C eranskinaren arabera.

–Kultur Gutxiengoetakoak, V. eranskinaren arabera.

–Lanbide Hastapeneko Programetakoak –Lanbide Lantegien modalitatea–, VI. eranskinaren arabera.

–Helduentzako euskarakoak, VII. eranskinaren arabera.

–Ospitaleko Pedagogia Terapeutikoaren Programetakoak, VIII. eranskinaren arabera.

–Espetxeko Lehen Hezkuntzakoak, IX. eranskinaren arabera.

II. oinarria.–Parte-hartzaileak.

Bigarrena.–Lehiaketa honetan parte hartzen ahal dute maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek –Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpe organiko eta funtzionalki daudenek eta horiekin parekatutakoak–, edozein egoera administratibotan daudela, eginkizun-gabetuak izan ezik, egoera horrek dirauen bitartean.

Lehiaketa honetan parte har dezaketela behin betiko destinoan ari diren maisu-maistra guztiak, azken behin betiko destinoa zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe, Unibertsitatez kanpoko irakas-kuntza hobetzeko neurri buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (84. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, uztailaren 12koa).

Borondatezko eszedentzian eta eginkizun-gabetuak dauden maisu-maistren kidegoko funtzionarioek zilegi izanen dute lekualdatze lehiaketan parte hartzea, baldin eta ikasturte honen bukaeran berbitzu aktiboan berriz hastea eskatzeko baldintzak betetzen badituzte edo eginkizun-gabetzearen diziplinazko zehapenarentzat ezarritako denbora igaro bada, hurrenez hurren.

Borondatezko eszedentziaren egoeratik parte hartzen duten funtzionarioek 2008ko irailaren 1ean joan beharko dute deialdi honen ondorioz egokitu zaien destinora, hala gertatuz gero.

Halaber, Iruñeko Udalaren ikastoletako irakasle funtzionarioek, 2003ko irailaren 1etik aurrera Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari langileen plantillan sartu zirenek, bai eta Berriozarko eta Atarrabiako Udaletatik heldu eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sartu ziren irakasle funtzionarioek ere, parte hartzen ahalko dute deialdi honetan.

Hirugarrena.–Lehiaketan parte hartzea behartuta daude, arrazoi hauekaren batengatik behin betiko destinorik ez duten maisu-maistarak:

1. Diziplina espedientearen ebazpen irmoa.
2. Epaia betetzea edo errekursoaren ebazpena.
3. Behin betikotasunez betetzen zuten lanpostua kentzea.
4. Behin-behineko destinoarekin itzultzea.
5. Nahitazko eszedentzia.
6. Eginkizun-gabetuak, zehapena bete eta gero.

7. Behin betikoz zuten lanpostua galtzea ekarri duten antzeko arrazoiak; besteak beste, atzerriko irakasle lanpostuetan jarduteko atxikipenaldia amaitzea.

8. Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak martxoaren 22ko 492/2007 Ebazpenaren bidez onetsitako hautapen prozeduran hautatutako izangaiak (46. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, apirilaren 13koa).

Parte-hartzaile horiek, martxoaren 22ko 492/2007 Ebazpeneko hamahirugarren oinarriarekin bat, nahitazkoa dute beren lehenbiziko behin betiko destinoa Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan lortzea, hautapen prozesua zein espezialitate eta hizkuntzatan gainditu duten, horiei dagokien lanpostu batean, eta, horretarako, hurrengo lekualdatze lehiaketetan parte hartu beharko dute. Horretarako, zein espezialitate eta hizkuntzatan gainditu duten hautapen prozesua, haiei dagozkien lanpostu guztiak eskatu beharko dituzte.

Atal horretan sartutako maisu-maistrei (lehiaketan parte hartzen ez badute edo parte hartuta ere behar beste lanpostu eskatzen ez badute) libreki esleituko zaie behin betiko destinoa, dagokien espezialitate eta hizkuntzaren arabera eskuratzen ahal dituzten lanpostuetan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruko ikastetxeetan. Nahitazko esleipena egiten da ikastetxeek II. eranskinetako zerrendan duten hurrenkerari jarraikiz.

Maisu-maistra horiei destinoa esleitzeko, hautapen prozeduran lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.

Destinoa lortzen ez badute, behin-behineko destinoa egoeran geratuko dira.

Laugarrena.–Era berean, lehiaketa honetan parte hartzea behartuta daude jardunean ari diren behin-behinekoak, behin betiko destinoa inoiz eskuratu ez badute.

Bosgarrena.–Hirugarren arauaren 1. eta 4. zenbakietan zehazten diren kasuetan dauden maisu-maistren eta oinarri honen laugarren arauak aipatzen dituenen artean, lehiaketan parte hartu ez edo eskatutako destinoerik eskuratu ez dutenei, lanpostu hutsik egonez gero, Foru Komunitateko edozein lanpostutan emanen zaie destinoa, baldin eta lan hori egiteko eska daitezkeen baldintza guztiak betetzen badituzte.

Lanpostuak esleitzeko, kontuan hartuko da ikastetxeak zein hurrenkeratan ageri diren deialdian, III, IV, V, VI, VII, VIII eta IX. eranskinetan adierazten diren izaera bereziko postuak ez dira ofizioz esleituko, ez eta ibiltariak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi kursoetakoak ere.

Seigarrena.–Maisu-maistrek behin-behineko destinoa baldin badute epaia betetzen ari direlako edo errekursoaren ebazpenaren ondorioz, edo titular zireneko lanpostua kentzeagatik, edo atzerriko ikastetxe espainiarretan irakasle gisa jarduteko atxikiak izan ziren denbora iragan delako, eta, betiere, lehiaketan parte hartzen ez badute, administrazio publikoek libreki esleituko dizkiete destinoak, aurreko arauan zehazten den moduan.

Lehiaketan parte hartzeko obligazioa betez, lehenengo sei deialdietan eskatutako destinoa eskuratzen ez dutenei, administrazio publikoek libreki esleituko dizkiete destinoak, lehen aipatu den eran.

Zazpigarrena.–Nahitazko eszedentzian dauden maisu-maistarak, lehiaketan parte hartzen ez badute, borondatezko eszedentzian daudela erabakiko da.

Lehen hiru deialdietan parte hartu eta eskatzen duten destinoa eskuratzen ez badute, administrazio publikoek emanen diete destinoa, oinarri honen bosgarren arauan adierazitako prozedurari jarraikiz.

Zortzigarrena.–Oinarri honen hirugarren arauaren 6. zenbakiko kasuan sartzen diren maisu-maistrak, lehiaketan parte hartzen ez badute, beren interes partikularrengatik borondatezko eszedentzian daudela erabakiko da.

Parte hartu eta eskatzen dituzten destinoak eskuratzen ez badituzte, administrazio publikoek emanen diete destinoa, lehen adierazitako moduan.

Bederatzigarrena.–Ez da inoiz bidezko izanen aurreko arauari jarraikiz lanpostuak ofizioz esleitzea, maisu-maistrek destinoa uztailearen 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren esparrutik kanpoko lehiaketa edo prozeduretan eskuratzen dutenean.

III. oinarria.–Lehentasanak.

Hamaikagarrena.–Deialdi honen I. eranskinean ageri den baremoa aplikatuz finkatuko dira lehentasanak.

IV. oinarria.–Eskaerak.

Hamaikagarrena.–Lehiaketan beren borondatez nahiz behartuta parte hartzen dutenek Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo kalea, zk.g., Iruña) eskuratzen ahal duten eskabidea bete beharko dute.

Eskabidearekin batera, deialdien arau komunaren V. oinarriko hemeztigarren arauan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

DEIALDIEN ARAU KOMUNAK

I. oinarria.–Lanpostu jakin batzuetan jardun ahal izateko berariazko betebeharrak.

Lehena.–Deialdi bakoitzean zehazten diren betebeharrak gainera, ondoko espezialitateetan postuak eskatu ahal izateko, kasuan kasuko gaikuntzaren jabe izatea frogatu behar da.

a) Hezkuntza Berezia:

–Pedagogia Terapeutikoa. Gaikuntza, Hezkuntza Bereziko Pedagogia Terapeutikoa.

–Entzumena eta Hizkuntza. Gaikuntza, Hezkuntza Bereziko Entzumenean eta Hizkuntzan.

b) Haur Hezkuntza. Gaikuntza, Eskolaurreko Hezkuntzan edo Haur Hezkuntzan.

c) Lehen Hezkuntza:

–Lehen Hezkuntza. Gaikuntza, OHOkoko Hasierako eta Erdiko Zikloetan.

–Ingelesa. Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Ingelesean.

–Frantsesa. Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Frantse-sean.

–Euskara (Nafarroa). Gaikuntza, Euskal Filologian (Nafarroa).

–Gorputz hezkuntza. Gaikuntza, Gorputz Hezkuntzan.

–Musika. Gaikuntza, Musika Hezkuntzan.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

–Euskara. Gaikuntza, Euskal Filologian (Nafarroa).

–Gaztelania eta Literatura. Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania; OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Ingelesean edo OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Frantsesean.

–Atzerriko hizkuntza (Ingelesa). Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Ingelesean.

–Atzerriko hizkuntza (Frantsesa). Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Frantse-sean.

–Matematika. Gaikuntza, OHOkoko Matematikan eta Natur Zientzietan.

–Natur Zientziak. Gaikuntza, OHOkoko Matematikan eta Natur Zientzietan.

–Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Gaikuntza, OHOkoko Gizarte Zientzietan.

–Gorputz hezkuntza. Gaikuntza, OHOkoko Gorputz Hezkuntzan.

–Musika. Gaikuntza, OHOkoko Musika Hezkuntzan.

e) Helduen hezkuntza:

–Lehen Hezkuntza. Gaikuntza, OHOkoko Hasierako eta Erdiko Zikloetan.

–Ingelesa. Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Ingelesean.

–Frantsesa. Gaikuntza, OHOkoko Filologian, Gaztelania eta Frantse-sean.

f) Eskatu nahi diren lanpostuak Kultur Gutxiengoetakoak, Lanbide Hastapeneko Programetakoak (Lanbide lantegi modalitatekoak) eta Espetxeko Lehen Hezkuntzakoak badira: Gaikuntzak, OHOkoko Hasierako eta Erdiko Zikloetan.

g) Ospitaleko Pedagogia Terapeutikoko lanpostua eskatzeko: Gaikuntza, Hezkuntza Bereziko Pedagogia Terapeutikoa.

h) Helduei euskara irakasteko lanpostuak eskatzeko: Gaikuntza, Euskal Filologian (Nafarroa).

Elebidun gisa sailkatutako lanpostuak eskatu ahal izateko, izangaiek agiri hauetakoren baten jabe izan beharko dute: Nafarroako Gobernuak edo Eusko Jaurlaritzak emandako EGA (Euskararen Gaitasun Agiria), Nafarroako Gobernuak homologatutako titulu baliokidea edo Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako euskararen gaitasun agiria.

Bigarrena.–Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko lehenbiziko xedapen iragankorraren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kurtsoetan ezartzen diren lanpostuak Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioek eska ditzakete, baldin eta deialdietan eskatutako gainerako baldintzak betetzen badituzte eta lehen bi kurtso horietako lanpostuei behin betikoz atxikita badaude, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kurtsoetan Pedagogia Terapeutikoko lanpostuetara jotzen diren maisu-maistrek ere, horretarako gaiturik badaude.

II. oinarria.–Deialdien arteko lehentasuna.

Hirugarrena.–Deialdien hurrenkerak lehentasuna ezartzen du lanpostu hutsen eta lehiaketen ondorioz hutsik gelditzen diren lanpostuen esleipena egiterakoan. Horrela, deialdi batean parte hartzen duen maisu edo maistra bati ezin zaio lanpostu bat esleitu, aurreko deialdian esku-bidea duen eskatzaile bati baldin badago; horrek ez du galarazten, herri edo eskualde jakin bateko lehentasun eskubidea erabiliz lanpostu bat esleitzen zaien kasuan, dagokion deialdian xedatzen dena kontuan hartzea.

Laugarrena.–Bidezko da, eskubidea izanez gero, eskabide bakarra erabiliz aldi berean bi deialditan edo gehiagotan parte hartzea. Eskabideak aurreko arauan adierazi den lehentasunari jarraikiz bideratuko dira eta, behin destinoa eskuratuta, gainerako eskaerak ez dira kontuan hartuko.

III. oinarria.–Lehentasuna, deialdi bakoitzeko lanpostu hutsak esleitzerakoan.

Bosgarrena.–Lanpostuak esleitzeko lehentasun hurrenkera I. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz erdietsitako puntuazioaren arabera finkatuko da, ikastetxean berriz atxikitzeko deialdia salbu, bertan zehazten diren irizpideen arabera ebatziko baita.

Seigarrena.–Baremoko a) eta b) kontzeptuei dagozkien zerbitzuak zehazterakoan, zein ikastetxetik parte hartzen den jakiteko kontuan hartuko da, behin betiko destinorik gabe parte hartzen dutenentzat (uztailaren 14ko 895/1989 Errege Dekretuaren 11.4 artikuluko kasuak), zerbitzuak behin betiko gisa emandako azkena, eta horiei gehituko zaizkie haren ondotik beste edozein ikastetxetan behin-behineko gisa emandako zerbitzuak.

Zazpigarrena.–Maisu-maistrek ikastetxe bateko behin betiko destinoa beste ikastetxe bat zatibitu edo osorik nahiz zati bat lekuz aldatzeagatik eskuratutako badute, baremoko a) atalean aurreikusten den egoaldi etengabearen ondorioetarako, jatorrizko ikastetxeari dagokiona hartuko da kontuan.

Zortzigarrena.–Behin betiko moduan jarduteko zuten eskola unitatea edo postua kendu dietelako, epaia bete edo errekurtsioa ezabateagatik destinoa galdu dutelako edo nahitaezko eszedentziatik heldu direlako, behin-behineko egoerarekin parte hartzen duten maisu-maistrek esku-bidea dute, gainera, azken ikastetxean behin betiko gisa eman zituzten zerbitzuak jatorrizko ikastetxeko zerbitzueldiari gehitzeko. Jarraian gertatutako lanpostu kenteak jasan dituzten maisu-maistren kasuan, jarraian kendutako lanpostuen ikastetxeetan behin betiko gisa emandako zerbitzuak ere gehitze horren barnean sartuko dira. Ondorioak jasanik beste behin betiko destinorik izan ez duen maisuak edo maistrak, baremoaren c) atalari dagokion puntuazioa gehitzeko eskubidea izanen du, zehaztu diren ondorioetarako.

Bederatzigarrena.–Baldin eta maisu-maistrek lehiaketa bidez lorturiko lehenengo behin betiko destinotik parte hartzen badute –betiere sartu berririk izanik behin-behineko egoeran egoteagatik nahitaez aurkeztu beharreko lehiaketa izan bada–, baremoko a) atalaren ordez c) atalari dagokion puntuazioa hautatu ahal izanen dute; kasu horretan zerbitzuan emandako urte guztiak behin-behinekotzat hartuko dira. Kontu hori aipatzen ez bada eskabide orrian horretarako heldu den lekuan, izangaiarentzat onena den puntuazioa hartuko da kontuan.

Hamargarrena.–Titular moduan zuten lanpostua kendu ondotik eskuratutako lehenengo behin betiko destinoan zerbitzuak ematen ari diren maisu-maistrek eskubidea izanen dute, lehiaketara aurkeztu diren honetan, orain dauden ikastetxean emandakotzat har dakizkien lanpostua kendu zitzaizen ikastetxean emandako zerbitzu haiek, bai eta lanpostu kente horren ondotik behin-behineko gisa emandakoak ere. Irizpide hau bera aplikatuko zaie, epaia bete edo errekurtsioa ebatzi edo nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik beren destinoa galdu ondotik eskuratutako lehenbiziko behin betiko destinoan zerbitzuak ematen ari direnei.

Hamaikagarrena.–Lehiatzaileek aurkeztu eta e), f) eta g) atalaren

ageri diren merezimenduak baloratzeko, Batzorde bat eratuko da, eta Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak izendatuko dituen kide hauek osatuko dute:

–Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko ikuskatzaile bat, batzordeburu lanetan.

–Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren menpeko lau funtzionario, batzordekide gisa.

Idazkari lanak Balorazio Batzordeak horretarako izendatutako kideak eginen ditu.

Erakunde Sindikalek Balorazio Batzordean parte hartzen ahal dute.

Batzordeko kideek deialdiko lanpostuetarako eskatzen den titulazioaren maila bereko edo handiagoko tituluaren jabe izan beharko dute.

Erakunde Sindikalen ordezkarien kopurua Administrazioaren proposamenez izendatzen diren kideena baino txikiagoa izanen da.

Merezimenduen baremoko gainerako ataletan lehiatzaileei dagokien puntuazioa Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak emanen du.

Hamabigarrena.–Guztirako puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, horiek ebazteko ikusiko da nork duen puntuaziorik altuena baremoko ataletako bakoitzean, kontuan harturik bertan zein ordenatan ageri diren. Horrekin ez bada berdinketa hausten, ikusiko da nork duen puntuaziorik altuena azpiataletako bakoitzean, berriz ere baremoan zein ordenatan ageri diren kontuan harturik. Bi kasuetan, atal bakoitzean aintzat hartzen den puntuazioa ezin izanen da atal bakoitzarentzat baremoan ezarritako gehieneko puntuazioa baino handiagoa izan, ez eta, azpiataleak dagokienez, horiek sartuta dauden atalari dagokion gehieneko puntuazioa baino handiagoa ere. Irizpide hauek aplikatzen direnean, azpiatal batean edo batzuetan haien atalari emandako gehieneko puntuazioa lortzen bada, gainerako azpiatalen puntuazioak ez dira kontuan hartuko. Beharrezkoa bada, berdinketa hausteko ondoko irizpide hauek erabiliko dira: kidegoan sartzeko hautapen prozesuaren deialdia egin zen urtea eta hautapen prozesu horretan lortu zuen zerrendako zenbakirik txikiena edo hautapen prozesu horretan lortutako puntu kopuru handiena.

IV. oinarria.–Lanpostu hutsak.

Hamahirugarrena.–Deialdi honen bitartez, Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetako plantillak onesten dituen ebazpenean aurreikusitako lanpostu hutsak gainera, deialdi guztien ebazpenetik ateratzen direnak ere eskaintzen dira. Horiez gain, erretiroengatik, heriotzengatik edo lanpostua gordetzeko eskubidea ez duten eszedentziengatik sortutako lanpostu hutsak ere sartuko dira, deialdiak ebatzi arte edo, kasua bada, 2007/2008 ikasturtea bukatu arte gertatzen direnak, alegia.

Arau honetan aipatzen diren lanpostu huts guztiak eskola plangintzan aurreikusita dauden lanpostuekin bat datozenak izan beharko dute.

Hamalagarrena.–Deialdi hauetan parte hartzen dutenek beren eskabideak aurkez dituzten, ebazpen honen II. eranskinean ageri da Nafarroako Foru Komunitatearen kudeaketa esparruan sartzen diren hezkuntza eskualdeetako ikastetxeen zerrenda, eta III., IV., V., VI., VII., VIII. eta IX. eranskinetan, aldiz, haietan aipatzen diren programei dagozkien beste postu berezi batzuk.

V. oinarria.–Eskabidea nolakoa den eta nola bete behar den.

Hamabosgarrena.–Deialdietan parte hartzeko eskaerak Hezkuntza Departamentuko Erregistroan (Santo Domingo, zk.g., Iruña), Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorrean edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2006ko 65. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, maiatzaren 31n) aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako bideetarako bat erabiliz.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta ziguila jar dituzten.

Eskabideak eredu ofizialari lotuko zaizkio, eta Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan eskuratzen ahalko dira.

Hamaseigarrena.–Parte-hartzaile bakoitzak bere eskabidean sar ditzakeen eskaerak, deialdi bakar baterako edo gehiagotarako direla ere, ezin dira 300 baino gehiago izan.

Hamazazpigarrena.–Eskaeretan, arestian aipaturiko kopuruaren muga kontuan hartuz, espezialitate eta ikastetxe guztiak sartzen ahal dira, badaezpada ere, izan ere, deialdiak ebatzi baino lehen edo deialdiak garatu bitarteko edozein unetan, hutsik gelditzen diren lanpostuak gehitzen baitira, hutsik geldituta baitaiteke lehiatzaileak nahi duen huraxe.

Eskaerak egiten ahal dira ikastetxe edo herri jakin baterako, bi bideak batera erabil baitaitezke. Halakorik gertatuko balitz, herrian bete gabeko edo hutsik gelditutako lanposturik duen lehen ikastetxea esleitu litzateke, deialdietan iragarrita agertzen diren ordena berean.

Eskatzen diren lanpostuak euskarazkoak edo/eta ibiltariak badira, gurutze bat jarri beharko da dagokion laukitxoan edo laukitxoetan.

Ikastetxe edo herri bateko lanpostu-espezialitate bat baino gehiago eskatzen bada, beharrezkoa da eskatzen diren lanpostuak adina aldiz errepikatzea ikastetxea edo herria. Ondorio horietarako, espezialitate bereberdintzat hartuko da hizkuntza betebeharra edo/eta izaera ibiltaria duena.

Hemezortzigarrena.–Eskabideetan zerrendan eman behar dira eskatzen diren lanpostuak, bertan ageri diren oharrak kontuan hartuz, eta lehenetsunez ordenaturik, eta eskabidea egiteko inprimakian aipatzen diren kontzeptu zehatzak ahal den garbieraz adierazi behar dira.

Interesdunak datuen bat oker eman edo eman gabe uzten badu, ezin izanen du halakorik aipatu geroko erreklamazioetan, ez eta uste izan ere hargatik bere interes nahiz eskubideak urratu direla.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondano, ezin izanen da inolako arrazoiengatik eskaera aldatu, ezta bertan eskaturiko lanpostuen lehenetsunezko hurrenkera ere. Kodeak irakurgaitzak direnean, osatu gabe daudenean edo datuak dagozkien laukietan ez badaude, eskaeran ez daudela kontsideratuko da eta horiei buruzko eskubide guztiak galduko dituzte lehiatzaileek.

Hemeretzigarrena.–Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

1. Zerbitzu orria, ziurtatua eta eskabideak aurkezteko azken egun baldiodunean itxia. Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizios erantsiko du zerbitzu orria.

2. Gaikuntzako ziurtagiriaren edo ebazpenaren kopia konpultsatua, organo eskudunak luzatua.

Irailean 3ko 397/1992 Foru Aginduaren babesean (114. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, irailaren 21ekoa), eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik gaikuntza berria eskatu dutenek edo eskatzen dutenek, deialdi hauetako edozeinetan parte hartzen ahalko dute, horretarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte. Aurkezten diren gaikuntza eskaera horiek behar diren baldintzak betetzen badituzte, gaikuntza egiaztatzen duen ebazpena emanen da eta lehiaketan parte hartzeko eskaera tramitatu eginen da.

Iruñeko Udalaren ikastoletako irakasle funtzionarioek, 2003ko irailaren 1etik aurrera Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari langileen plantillan sartu zirenek, bai eta Berriozarko eta Atarrabiako Udaletatik heldu eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera sartu ziren irakasle funtzionarioek ere, zein espezialitateetan parte hartu nahi duten lekualdatze lehiaketan, espezialitate horri edo horiei dagokien gaikuntza lortzeko beharrezkoak diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Gaikuntzak langile horiek mai-su-maistren kidegoan sartzen direnean emanen dira.

Agiri horiekin batera gaikuntza eskabidea aurkeztuko behar dute. Horretarako eskabide orria interesdunen eskura dago Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo kalea. zk.g., Iruña).

Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizios erantsiko ditu 1. eta 2. ataletan aipatutako agiri horiek.

3. I. eranskineko baremoko b) atalean ageri diren ondorioetarako, jatorrizko lanpostua zailtasun berezikiotzat hartu dela egiaztatzen duen agiria.

4. Gainditutako hobekuntza ikastaro sartzeko eta kidegoan sartzeko alegatu ziren titulu akademikoek bestekoen egiaztagiria, baloratuak izan daitezkeen, edo otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuetan xedatutakoaren arabera lortutako espezialitateak (53. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, martxoaren 2koa). Baremoko e) eta f) ataletan ezarritako moduan egiaztatu beharko da dokumentazio hori.

5. Elebidun gisa katalogatutako lanpostuetarako, izangaiak Nafarroako Gobernuak edo Eusko Jaurlaritzak emandako EGA titulua (Euskararen Gaitasun Agiria) dutela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, edo beste titulu baliokideren bat Nafarroako Gobernuak homologatutakoa, edo Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako euskararen gaitasun agiria, salbu eta euskarazko espezialitate batetik abiatuta parte hartzen duten izangaien kasuan.

Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizios baloratuko die zerbitzu orrian ageri den euskara titulua hizkuntza horretan ematen den espezialitate bati atxikitako maisu-maistrei, ez badute behintzat deialdian parte hartzeko eskabidearekin batera aurkezten merezimenduen baremoko g.1.7 atalean aipatutako euskara titulua egiaztagiria.

VI. oinarria.–Beste arau batzuk.

Hogeigarrena.–Ebazpen honekin argitaratzen diren deialdi guztietan, eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hasita.

Hogeita batgarrena.–Deialdi honetan betekizun diren baldintza guztiek eta lehiatzaileek alegatzen dituzten merezimenduek beterik edo onarturik behar dute egon eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako, lekualdatze lehiaketarako deialdiko bigarren oinarriaren bigarren arauko hirugarren lekualdatzean aurreikusitako salbuespenarekin.

Hogeita bigarrena.–Ez dira kontuan hartuko eskabideetan aipatzen ez diren merezimenduak, ez eta horiek aurkezteko epearen barrenean agiri bidez frogatzen ez direnak ere. Agiriak konpultsatzen ahal dituzte Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetako zuzendariak, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 18ko 182/2001 Foru Aginduak xedatzen duenari jarraituz (79. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, ekainaren 29koa).

Hogeita hirugarrena.–Zilegi izanen da deialdiko arauak betetzen ez dituen edozein lehiatzailek lortutako destinoa balio gabe uztea, eta esleitutako lanpostua hutsik geldituko da hurrengo deialdirako, baldin eta hezkuntzako plangintza orokorrean aurreikusita badago.

Hogeita laugarrena.–Edozein deialditan, lanpostu jakin bat eskatzeko, nahitaezko betebeharrak da hartan lanean aritzeko gaiturik egotea, hurrengo oinarrian ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

Hogeita bosgarrena.–Maisu-maistraren batek lekualdatze lehiaketaren deialdian parte hartzen badu eszedentzian dagoela, eta destinoa lortzen badu, Giza Baliabideen Zerbitzuan eta lanpostuaz jabetu baino lehen aurkeztu beharko ditu ondoren zehaztuko diren dokumentuak; horiek arestian aipatutako organoak aztertuko ditu, adostasuna agertu eta eskuratu duten destinoaz jabetzeko baimena emateko. Aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira: eszedentzia ebazpenaren kopia, eta Estatuko, erakundeetako edo tokiko administrazioetik ez dela diziplina espedientearen bidez baztertua izan eta eginkizun publikoetan jarduteko desgaiturik ez dagoela adierazten duen aitortpen agiria.

Irakasleren batek ezin baditu lanera itzultzeko betebeharrak justifikatu, ezin izanen da lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu, eta lanpostu hori hutsik geldituko da hurrengo deialdirako, baldin eta hezkuntzako plangintzan aurreikusita badago.

Hogeita seigarrena.–Deialdi hauetan lanpostua lortzen duten irakasleak, tramitazio garaian destinoko lanpostuen trukea egin baldin badute, behartuta daude deialdian esleitutako lanpostuan jardutera, eta onartutako trukea baliorik gabe geldituko da.

VII. oinarria.–Tramitazioa.

Hogeita zazpigarrena.–Deialdietako parte-hartzaileak onartu eta baremazioa egiteko prozesua bukatutakoan, Giza Baliabideen Zerbitzuak ondoko zerrendak jarritu ditu iragarki oholean:

a) Ikastetxeko maisu-maistrak berriz atxikitzeko deialdian parte hartzen dutenen zerrenda, hurrenkera alfabetikoa herriz herri, eta herri bakoitzean ikastetxez ikastetxe. Ikastetxe bakoitzeko eskatzaileak, berriz, parte hartzeko hautatu duten atalaren arabera ordenatuko dira. Zerrenda honetan adierazi behar da irakasleak behin betiko gisa ikastetxean duen antzintasuna, karrerako funtzionario gisa egindako zerbitzu-urteak, kidegoan sartu zen urtea eta promoziozko zerrendan lortutako zenbakia.

Kidegoan abenduaren 30eko 31/1991 Legearen 29. xedapen gehigarriaren arabera sarturiko langileei eta horiekin parekatutakoei dago kienez, maisu-maistraren kidegoko karrerako funtzionario gisa zuten antzintasunari lan-kontratudun finko gisa egiazaturik dutena gehituko zaio, lehen zerbitzu-urtea kenduta.

b) Beren lehenatasuneko eskubideaz baliatzeko deialdian parte hartzen dutenen zerrenda, taldeka ordenatuak, aipatutako deialdiaren lehen arauan, laugarrenarekin bat etorritik, adierazten den lehenatasunaren arabera. Zerrenda honetan espresuki aipatu beharko da parte-hartzaile bakoitzari dagokion puntuazioa, baremoko kontzeptuen arabera.

c) Lekualdatze lehiaketan parte hartzen dutenen zerrenda, baremoko kontzeptu bakoitzaren arabera bakoitzari dagokion puntuazioa adierazita.

Jendaurrean jarriko dira, halaber, baztertu diren eskaerak.

Giza Baliabideen Zerbitzuak bost egun balioduneko epea emanen du, behar diren erreklamazioak egiteko.

Hogeita zortzigarrena.–Aipatutako epea amaitu ondoan, iragarki oholean erakutsiko dira egin diren zuzenketa guztiak.

Erakustaldi horren aurkako erreklamaziorik ezin da egin harik eta Hezkuntza Departamentuak deialdiei buruzko behin-behineko ebazpena jendaurrean jarri arte eta behar den erreklamazio epea ezarri arte.

VIII. oinarria.–Destinoa esleitu eta lanpostuaz jabetzea.

Hogeita bederatzigarrena.–Hezkuntza Departamentuak deialdi hauetan xedatzen dena betetzean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu; lanpostuak behin-behineko esleituak ditu eta erreklamazioetarako eta atzera egiteko epea emanen, eta, azkenik, behin betiko izendapenak egingen ditu, haiek guztiak ebazpen beraren bidez ebartziko direlarik, gero Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den hartan, eta, horren bidez, zerikusiria duten lehiatzaile guztiak jakinaren gainean jarri direla ulertuko da.

Hogeita hamargarrena.–Deialdien behin betiko ebazpenaren esleitutako lanpostuei ezin izanen zaie uko egin.

Hogeita hamaikagarrena.–Praktiketan ari diren funtzionarioei destinoa esleitzeko ezinbestekoa da praktikaldia gainditzea.

Hogeita hamabigarrena.–Jabetza hartzea 2008ko irailaren 1ean egingen da eta aurreko lanpostua abuztuaren azkeneko egunean utziko da.

IX. oinarria.–Errekurtsoak.

